

XII. MENDEKO EUSKAL HERRIA SANTIAGO BIDEAN: LIBER SANCTI IACOBI V, 7

***Gidor Bilbao Telletxea
EHU, Gasteiz***

Santiagooren inguruko otoitz, kantu, sermoi, mirari eta kontakizunak biltzen dituen XII. mendeko *Liber Sancti Iacobi* liburuko V, 7 kapituluan, Santiago bideko lurralde eta herrien ezaugarriei buruz arituko dela iragartzen denean, orduko Euskal Herriari buruz dihardu gehienbat. Liburuari eta Aymeric Picaud ustezko egileari buruzko argitasunak eskaini ondoren, jatorrizko latin testua eta gure euskal itzulpena aurkezten ditugu. Eskoletan erabiltzeko moduan egokituta ere ematen dugu latinezko testua eraskinean.

In the V, 7 of the *Liber Sancti Iacobi*, a book written in the XII century that collects several prayers, song, sermons, miracles and stories concerning Santiago, in the passage where information is announced about the people and the lands across the way of Santiago, the book mainly deals with the Basque Country at that time. Together with clarifications about the book and about its presumable author, Aymeric Picaud, we offer the original text in Latin, as well as our translation into Basque. Finally, we also present in the appendix an adaptation of the Latin text for use in school.

Nahikoa ezagunak dira XII. mendean idatziriko *Liber Sancti Iacobi* deritzon azken liburuan garai hartako euskaldunen ustezko ohiturak aipatuz agertzen diren zenbait pasarte, gogorrenak eta gordinenak bereziki, baina zatitxoren bat baino ez da eman argitara euskaraz (Mirande & Peillen 1979: 46-47) eta sarriegi nahasi dira egileari eta liburuari buruzko berriak, iturria ondoegi ezagutu gabe. Horrenbestez iturriei buruzko zenbait argitasun eskaini ondoren, osorik aurkeztu nahi dugu aipatu liburuko V,7 kapituluaren latinezko jatorrizko testua, euskarazko itzulpenarekin eta argibideekin batera.

Aymeric¹ Picaud elizgizonari egotzi izan zaizkio *Liber Sancti Iacobi* 'Santiagoren liburua', 'Santiagori buruzko liburua' delakoan biltzen diren hitzak, baina gauza gutxi dakigu gizon honi buruz, ez dakigu jakin benetako ala asmatuiko pertsonaia den ere, eta benetakoia izanez gero, liburu osoaren edo zati baten egilea, moldatzailea, kopiagilea ala soilik liburua Santiagoko elizari ematen diona den. Izan ere gaur bertan ez dago adostasunik ikerlarien artean honi buruz².

Inozentzio II.a Aita Sainduak sinaturik eskuizkribuarekin batera eraskin gisa agertzen den gutun batetik dakigu Aymeric Picaud ustezko egileari buruz dakiguna³. Kalisto II.a

aita sainduak idatzi eta Aymeric Picaud Parthenay-le-Vieux hiriko apaizak Santiagora daraman liburua benetakoa eta onuragarria dela egiaztatzeko idazten du ustez Inozentzio II.ak agiri hau. Aymeric Picaud hau Vézelayko Santa Maria Magdalena herriko Olibero de Iscan bezala ere ezagutzen dela dioela dirudi –ez baita ulertzeko argia hori dakarren zatia (*qui etiam Oliuerus de Iscani uillae Sancte Magdalene de Uiliziaci*)– eta Girberga andere flandestarra dakarrela bidelagun. Datu hauek harturik eta Santiagoko eskuizkribuan bi orri lehenago agertzen den gorazarre-kantuaren egiletzakoia ere Parthenayko Aymeric Picaud bera dela kontutan izanda defenditu da gizon honen egiletasuna. Gainera V,5 eta V,9 kapituluaren izenburuan ere bigarren Aymeric bat (*cancellarius*) agertzen da, lehenengoarekin nahasi izan dena, baina itxura guztien arabera beste bat dela onartu behar duguna, hots Kalisto II.aren garaitik Inozentzio II.aren aita sainduen kantzeleri izan zen gizona. Baina edozein kasutan ere hala Inozentzio II.aren gutunak, nola kapituluaren izenburuetan agertzen diren izenek edo Kalisto II.ak liburuaren egiletasuna beretzat hartuz eskuizkribuaren hasieran ezarri duen idazkiak, ez dute literatur jolas batek edo nahita egiletasuna estali nahi

1. *Aymericus* da eskuizkribuetan agertzen den izenaren latinezko forma. Hortik *Aymeric*, *Aimeric*, *Aymerico*, *Aimery*... eta beste aldaera batzuk atera izan dira. Lehena hartu dugu, ziurrenik gehien zabaldua delako.

2. Manuel C. Díaz y Díaz jaunak duela bost urte ordurarteko iritziak bildu zituenetik (1988: 59-60, 81-87, 90-91) gauzak ez dira aldatu arlo honetan, 1993an ugaritu diren Santiago bideari buruzko ikerlari biltzarretan ikusi ahal izan denez. Esan dezagun bide batez, aurrerago azalduko ditugun beste iritzi eta datu askotan ere zordun gatzaiizkiola Santiagoko Unibertsitateko irakasle honi, bakoitzean aipatzen ez badugu ere.

3. Liburua amaitutzat eman ondoren beste hamaika orri (f. 214-225) ditu Santiagoko *Codex Calixtinus* eskuizkribuak (C hemendik aurrera), zenbait gorazarre-kantu eta otoitz bilduz. Hauen artean dago Inozentzio Aita Sainduaren gutuna (C f. 221 = Whitehill 1944: 399-400).

duen joko batek merezi dutena baino sinesgarritasun handiagorik.

Izan ere benetan nahasia da bilduma bat osatzen duen hain liburu anitzaren egiletasuna argitzea. Polito esan zuen Bédier-ek leienda epikoak aztertzean (Bédier 1912: III, 87-88) gure liburu honetan sasi-Leon batek egiaztatzen duela Santiagoren gorpuaren leku aldaketa, sasi-Turpin batek Karlomagnoren historia, sasi-Kalisto batek sasi-Leonen bula eta sasi-Turpinen kronika, sasi-Inozentzio batek sasi-Kalistoren lana eta era berean Aymeric Picaud eliz-gizonarena, agian sasi-Aymeric Picaud batena. Gauzak honela, onar dezagun noizbait liburu osoaren ardura izan duen norbait izan bada, beste daturik ez dugun bitartean Aymeric Picaud izena eman diezaiokegula, frantsesa, Compostela ingurukoa ala nongoa izan zen erabaki gabe, eta lana jatorrian espainiarra izanagatik azken moldaketan esku frantsesa ere izan zitekeela baztertu gabe.

Egilearen berri nondik nora dakigun –edo ez dakigun– ikusi ondoren liburuak hartu dituen izenen arazoa argitu behar da, lan osoarentzat zuzena lehena bakarrik izan arren bereizketa gabe erabili izan baitira *Liber Sancti Iacobi*, *Codex Calixtinus* eta *Liber Peregrinationis* izenak.

Ez dago ondo liburuaren edukia aipatzeko *Codex Calixtinus* izena erabiltzea, horrela liburu hori bilduz

geratu zaizkigun eskuizkribuetatik bat baino ez baitugu izendatzen, ziurrenik ezagutzen dugun zaharrena eta garrantzitsuena, baina bat. *Codex Calixtinus* 'Kalisto aita sainduaren eskuizkribua' deitzen zaio Santiago de Compostelako Katedraleko artxiboan den kodizeari ustez Kalisto II.a aita sainduak sinaturiko gutuna darmaalako hasieran josita, eskuizkribua berak idatzia dela ziurtatuz. Ziurrenik zaharrena eta garrantzitsuena dela esan dugu, izan ere XII. mendean idatzia da eta, baina ez da pentsatu behar jatorrizko bakarra berau denik, esku batek baino gehiagok egin baitituzte pergamino gainean eransketak eta zuzenketak beste eredu batzuk aurrean izanik⁴.

Antzinatasunean bigarrena Ripolleko eskuizkribua dela onartu ohi da⁵. Data zehatza ematen du Arnaldo del Monte Ripolleko lekaide kopiagileak idatzitakoari eransten dion oharrean⁶. 1173. urtean burutu omen zuen kopiaketa-lana Santiagon, asti handirik gabe zebilenez soilik II, III eta IV. liburuak osorik eta I eta V. ataletako zati batzuk aukeratuz. Honek esan nahi du 1173rako, eta ziurrenik 1172rako, transkripzio-lana luzea izan bide zen eta, bazela Compostelan *Liber Sancti Iacobi*-ren ale bat orain ezagutzen dugun osotasunarekin⁷. Ale hori *Codex Calixtinus* deitzen duguna ala beste bat izan zen ez dakigu.

Ezagutzen diren gainerako eskuizkribu guztiak beranduagokoak

4. Arazo paleografikoez bereziki Díaz y Díaz 1988: 70-72 eta 271-308 ikus daiteke.

5. Aragoiko Koroaren Artxiboa, Bartzelona, *ms. Ripoll 99*.

6. Behin baino gehiagotan eman da argitara gutun hau. Besteak beste Vielliarden liburuan aurki daiteke eraskin bezala latinezkoaren transkripzioa frantsesezko itzulpenarekin (Vielliard 1938: 126-131).

7. 1160. urtea onartu ohi da, orain azalduko ez ditugun beste arrazoibide batzuegatik, osotasunaren idazte-data bezala.

dira, Salamancako XIV. mendekotik hasi⁸ eta mundu guztian zehar zabaldu ziren *libellus* edo laburpenetararte⁹.

Liber Peregrinationis 'Erromesaldiko liburua', 'Erromes liburua' izena ere erabili dela *Liber Sancti Iacobi*-ren ordez esan dugu. Liburu osoa bost liburu edo atalek osatzen dute¹⁰. Bostak dira erabat ezberdinak edukiari dagokionean baina helburuetan elkarrekin lotuak. Lehen atala da luzeena, bera bakarrik beste laurak bezain luzea, eta ordu-liburu, meza-liburu eta elizkizunetan erabiltzeko otoitz, kantu eta sermoiez osatua da. Bigarren atala mirari-liburua da, Santiagok mundu guztian zehar eginiko mirariz hornitua¹¹. Hirugarren liburu laburrak Santiagoren gorpua Compostelara heldu zeneko kontakizuna azaltzen du. Karlomagnoen ondoan borrokatu zuen Turpin artzapezpikuak idatzi omen zuena da laugarren liburua, Pseudo-Turpin ezaguna, besteak beste Karlomagno eta Erroldanen historia kontatu eta Santiago bidea Frantziako erregearekin lotzen

duena. Bosgarren liburua da, azkenik, erromesaren gidaliburu bezala antolatu dena.

Gidaliburu bezala agerturik, lehenbizi Santiagorako ibilbidean aurkitzen dena azaltzen du (V,1-8 kapituluak) *itinerarii* delako literatur generoan egin ohi den modura, kontakizun ugari tartekatuz, eta behin Santiagora iritsiz gero Compostelako hirian eta batez ere hango katedralean ikusi behar direnak azaltzen ditu (V,9-11) *descriptions urbis* generoan egiten den erara. Ibilbidea azaltzean, bide ezberdinak nondik ziren esaten du, herrien izenak aipatzen ditu nola edo halako zerrenda eginez, aurkitzen diren ostatu-eritegi eta santutegien berri ematen du, ura non edan daitekeen eta non ez ere zehazten du... ustez gidaliburu oso batek eskaini behar dituen datuak eskainiz. Baina ez da inola ere gidaliburu orekatua, 50-70 kilometroko bidea egin behar diren egunak (gehiegitxo oinezkoarentzat) asko dira, adibidez, Aymericen aholkuak jarraituz

8. V. liburuaren facsimila argitaratu da aurten, transkripzioa eta zenbait ikerlanekin batera. Eskuizkribuari berari (BU, ms. 2631) buruz berriro ere Díaz y Díaz jaunak idatzirikoa irakur daiteke argitalpen honetan (Fundación Caixa Galicia 1993: 35-38).

9. Londresko Britainiar Bibliotekakoa, XIV. mendekoa (BL, *add.* 12213), Vatikanoko Biblioteka Apostolikokoa, XIV. mendekoa (BAV, *Arch. S. Pietro C. 128*) edo Pistoiaiko Estatuaren Artxibokoa (AS, *Docum. vari 27*) aipa daitezke eskuizkribu ezagun garrantzitsuenen artean. Eskatuta ditugu hauen eta beste batzuen argazki edota mikrofilmak, bereziki interesgarri izan baitaiteke guzti hauetan euskarazko hitzek duten transkripzioa ikustea, Santiagoko eskuizkribuan baino irakurketa zuzenagoak aurki daitezke batzuetan eta.

10. Behin bakarrik argitaratu dira orain arte bost liburuak batera (Whitehill 1944) eta gainera ale gutxi plazaratu zirenez ez da erraz aurkitzen. Latinezko testuaren transkripzioak huts gehiegi dituela ere esan egin behar da.

11. Liburu honetan agertzen da lehenbizikoz, adibidez, urkatu ondoren santuaren laguntzaz bizirik iraun zuen erromes semearen miraria (*C II, 5, f. 144-145* = Whitehill 1944: 267-268). Interesgarria izango litzateke istorio honen bilakabidea aztertzea, hemen hitz gutxitan kontaktzen den mirariak 241 ahapaldiko jekaldi bat osatzen baitu adibidez *Charlemagne* Zuberoako pastoraleko eskuizkribuetako baten XIX. mendean (cf. Oyharçabal 1991: 68-72, 341-369), *Saint Jacques* pastoralean ordea 234 ahapaldi eskuizkribu baten (Oyharçabal 1991: 379-395) eta 109 honen oinordeko den beste baten (Sü Azia Elkartearen eskuizkribua, ms. 2702), pastoral zaharretan ohi bezala literatur kontakizun unibertsal bat jorratuz euskaraz.

gero¹², eta guri orain axola digun V,7 kapituluan Toulousetik Gareserainoko bidea 31 hitzetan garbitzen badu, 391 behar ditu Toursetik Baionarainoko bideko zehaztasunak eskaintzeko eta 1254 Baionatik Burgoserainoko herrien ezaugarri eta gorabeherak azaltzeko (644 Baionatik Orreagarainokoa, *tellus Basclorum* 'euskal lurraldea' deitzen duenean eta 610 Orreagatik Burgoserainokoa, Aymericen *tellus Nauarrorum* 'nafar lurraldea' deiturikoa hain zuzen), Burgosetik Santiagorainokoa dago-kiona berriz 136 hitzetan garbituz.

De nominibus terrarum et qualitibus gencium que in ytinere Sancti Iacobi habentur 'Santiago bidean diren lurraldeen izenei eta herrien ezaugarriei buruzkoa' jarri diote izenburutzat V,7 kapitulu honi, baina ibilbide-zati bakoitzari dagokion hitz-kopuruak adierazten duenez gaur egun Euskal Herria deitzen duguna da egilearen arreta bereziki merezi izan duena. *tellus Basclorum* 'euskal lurraldea' eta *tellus Nauarrorum* 'nafar lurraldea' bereizten ditu, esan bezala, eta orobat *Bascli* 'euskaldunak' eta *Nauarri* 'nafarrak', baina ez die izen hauei guk gaur ematen diegun balioa ematen. Baionatik Orreagara bitarteko biztanleak dira *Bascli*, eguneko Ipar Euskal Herrikoak edo, eta Orreagatik hegoalderakoak *Nauarri*, gaur Hego Euskal Herria deitzen dugunean bizi direnak, bai gaurko nafarrak eta baita bizkaitar, arabar eta gipuzkoarrak ere, izan ere nafarrez orokorrean aritzean

hauetako batzuen ohitura bat zehazteko Bizkaia eta Arabakoak aipatzen ditu Aymericen (*in quibusdam horis eorundem, in Biscaglia scilicet et Alaua, dum Nauarri...*, hots 'hango [Nafarroako] eskualde batzuetan, Bizkaian eta Araban hain zuzen, nafarrek...')¹³. Nafarrak lehenbizikoz aurkeztean aipamen berezi bat du XII. mendeko idazleak *Nauarri* eta *Bascli* direlakoan arteko zerikusia zehazteko:

Nauarri et Bascli unius similitudinis et qualitatis in cibus scilicet et uestibus et lingua habentur, sed Bascli facie candidiores Nauarris appobantur.

Hots, "nafarrek eta euskaldunek itxura eta ezaugarri berdinak dituzte, janariak, jantziak eta hizkuntzari dagokionean hain zuzen, baina begitartea zuriagoa dute euskaldunek nafarrek baino". Aurrerago ere nafarren ohiturak azaltzean beste bi aldiz agertzen ditu ohitura jakin batzuk gaurko Ipar eta Hego Euskal Herriko biztanleak parekatuz (*Nauarri aut Basclus* 'nafarra edo euskalduna').

XII. mendekoak dira liburu honetan azaltzen diren lurralde eta herriak, baina gehiago ere hurbil gaitzke arkeologi datuak kontutan izanik V. liburu honen idazte-datara. Orreagan deskribitzen dituen eta deskribitzen ez dituen monumentuak bakoitzaren benetako eraikuntza-datarekin alderatuz eta goitik behera zehatz-mehatz azaltzen zaigun Santiagoko katedralean ez duela

12. Goicoechea 1972 eta Passini 1987 ikus daitezke *Liber Peregrinationis* delakoan proposatzen diren ibilaldiak benetan zenbat kilometrokoak diren eta nola dauden banatuta konturatzeko. Vázquez de Parga (Vázquez de Parga & Lacarra & Uria 1948-1949: I, 212-214) ondo erakusten du gidaliburu honek bidaiariari aurkezten dion bide eta egun-banaketa ez dena benetan jarraitzeko modukoa.

13. Honela zehazten du Koldo Mitxelena (1964: 49) bereizketa: "La distinción de *Bascli* y *Nauarri* no responde a la que hoy se suele hacer, sino a la que en los siglos XVI-XVII se establecía entre los *vizcainos* y los *vascos* de Ultrapuertos".

1135. urtean eginiko erretaula aipatzen kontutan izanik, 1135-1140 urteetan idatzi bide zen *Liber Peregrinationis* hau, ziurrenik idazleak berak 1130. urtean edo eginiko bidaiako datuak bilduz¹⁴.

Honaino esandakoarekin agian hobeto kokatuko dira XII. mendean Euskal Herriari buruz idatzitakoak, baina amaitu baino lehen merezi du testuaren atarian Jon Mirandek eta Txomin Peillenek duela hogeita hamarren bat urte argitaratu zuten *Igela* aldizkariko bigarren zenbakian Aymericen hitzetako batzuk euskaratzean erantsiriko oharra gogoratzea: “Ez utzi zuek ere arrotzeri gure karikaturaren egiteko axola. Bakoitzak bere burua joiten eta astintzen duenean ez du hainbeste min egiten”.

Gure testua eta euskarazko itzulpena

Santiago de Compostelako katedraleko *Codex Calixtinus* (C laburdurarekin aipatu dugu edizioan) eskuizkribu ezagunak ematen duen testua hartu dugu funtsean gurearen oinarritzat, ohi bezala laburdurak osatuz eta soilik puntuazioa (letra larri eta xeheak barne) aldatuz eguneko ohituretara. Romero de Leceak (Romero de Lecea & Guerra Campos & Filgueira Valverde 1971) argitaraturiko facsimila eta Vielliard (1938:

16-33) andereak eginiko edizioa izan ditugu aurrean transkripzioa burutzean. Leku bitan bakarrik aukeratu dugu Compostelako eskuizkribuak ematen ez duen irakurketa: *grugnis* hitzean, Fitaren proposamena (Fita & Vinson 1882: 11) onartu eta eskuizkribuetakoak baztertuz, eta euskarazko *ogui* hitzean, Salamancako kopiagileak eta Ripollekoak ulertu zutena hobetsi eta Compostelako eskuizkribuko *orgui* irakurketa okertzat emanaz.

Orain arte hirurak batera sekula agertu ez direnez, aparatu kritikoan eskaintzen ditugu Ripolleko (R laburdurarekin) eta Salamancako (S gure edizioan) eskuizkribuetan irakur daitezkeen aldaerak. Vielliarden aipatu edizioan agertzen den kotejoaz baliatu gara Ripolleko lekaideak idatzi zuena emateko; Salamancakoaren kasuan Fundación Caixa Galiciak (1993) argitara emaniko facsimila erabili dugu, benetan lagungarri izan zaigularik honekin batera María Araceli García Piñeiro eta Pilar del Oro Trigo andereek argitaratutako transkripzioa (Fundación Caixa Galicia 1993: 72-94).

Ez dago esan beharrik, euskaratu dugun testua geure edizioko testu nagusian eskainitakoa da, Compostelako eskuizkribukoa horrenbestez, aipaturiko bi salbuespenekin.

14. Kontutan izan behar da ordea, bereziki euskal hitzak hortxe daudelako (f. 196v), bifolio zaharra kendu eta bigarren esku batek (2 eskuak) idatzi eta erantsirikoa dela, besteak beste, 196 / 223 orriak dauden bifolio osoa (cf. Díaz y Díaz 1988: 261-269). 2 eskuaren lana 1172a baino beranduagokoa bide da, Ripolleko Arnaldo del Montek kopiatu zuenean oraindik testu zaharra baitzegoen (cf. Díaz y Díaz 1988: 273, 292-296), eta horrenbestez horixe izango genuke euskal hitz-zerrenda dagoen orria kopiatu zeneko *a quo* data.

Aipaturiko bibliografia*

- Bédier, J., 1912, *Les légendes épiques. Recherches sur la formation des Chansons de Geste*, Paris.
- Bravo, M., 1989, *Guía del Peregrino Medieval (Codex Calixtinus)*, Sahagun.
- Díaz y Díaz, M.C., 1988, *El Códice Calixtino de la Catedral de Santiago: Estudio codicológico y de contenido*, Santiago de Compostela.
- Fita, F., & Fernández Guerra, A., 1880, *Recuerdos de un viaje a Santiago de Galicia*, Madril.
- Fita, F., & Vinson, J., 1882, *Le codex de Saint-Jacques de Compostelle (Liber de miraculis s. Jacobi), livre IV*, Paris.
- Fundación Caixa Galicia, 1993, *Guía del peregrino del Calixtino de Salamanca*, Salamanca.
- Goicoechea, E., 1972, *Cartografía del Camino de Santiago*, Lizarra.
- Mirande, J. & Peillen, Tx., 1979, *Igela: euskaldun heterodoxoen errebista*, Donostia.
- Mitxelena, L., 1964, *Textos Arcaicos Vascos*, Madril [=ASJU-ren gehigarriak XI, 1990].
- Moralejo, A. & Torres, C. & Feo, J., 1951, *Liber Sancti Iacobi. Codex Calixtinus*, Santiago [=1992].
- Oyharçabal, B., 1991, *La pastorale souletine. Edition critique de "Charlemagne"*, ASJU-ren gehigarriak XVI, Donostia.
- Passini, J., 1987, *El Camino de Santiago. Descripción topográfica*, Madril.
- Romero de Lecea, C. & Guerra Campos, J. & Filgueira Valverde, J., 1971, *Libro de la Peregrinación del Códice Calixtino*, Madril.
- Vázquez de Parga, L. & Lacarra, J.M. & Uría Riu, J., 1948-1949, *Las peregrinaciones a Santiago de Compostela*, Madril [=1992].
- Vielliard, J., 1938, *Le guide du Pèlerin de Saint-Jacques de Compostelle*, Macon [=1990].
- Whitehill, W.M., 1944, *Liber Sancti Iacobi. Codex Calixtinus*, Santiago.

* Díaz y Díaz jaunak eskaintzen du *Codex Calixtinus* delako kodizea eta testuari buruzko bibliografia orokorra, gainera edizio oso eta zatikakoak, argazki eta facsimilak, itzulpen zahar eta berriak banan-banan aipatuz (Díaz y Díaz 1988: 119-133). Santiago bidea eta erromesaldiei buruzko bibliografia zabalak Vázquez de Parga, Lacarra eta Uriaren lanean aurki daiteke, lehen edizioan 1949rartekoa (Vázquez de Parga & Lacarra & Uría 1948-1949: III, 167-194) eta 1949tik 1992rartekoa 1992an Nafarroako Gobernuaren eskutik argitaraturikoan Fermín Miranda Garciak osaturik (Vázquez de Parga & Lacarra & Uría 1948-1949 [1992ko edizioa]: III, I-LXXXVIII).

***Liber Sancti Iacobi V, 7:
De nominibus terrarum et
qualitatibus gencium
que in itinere Sancti Iacobi
habentur***

In Beati Iacobi uatico, uia scilicet Tolosana, primitus, transito flumine Garona, inuenitur tellus Gasconica; et exinde, transitis Portibus Asperi, terra Aragoni, et inde Nauarrorum tellus usque ad Pontem Arge et ultra.

Per tramitem uero Portuum Cysere, post Turonicam inuenitur abilis et optima et omni felicitate plena tellus Pictaorum. Pictai sunt heroes fortes et uiri bellatores, arcubus et sagittis et lanceis in bello doctissimi, in acie freti, in cursibus uelocissimi, in ueste uenusti, in facie preclari, in uerbis astuti, in premiis largissimi, in hospitibus prodigi.

Inde tellus Sanctonensium inuenitur; inde transito quodam maris brachio et flumine Garona, Burdegalensium tellus que uino optimo et piscibus fertilis, sed lingua rustica habetur. Sanctonenses lingua rustici habentur, sed Burdegalenses rusticiores approbantur.

***Liber Sancti Iacobi V, 7:
Santiago bidean diren lurraldeen
izenei eta
herrien ezaugarriei buruzkoa***

Santiago bidean, Toulouseko ibilbidetik hain zuzen ere¹, Gaskonia-ko lurraldea aurkitzen da lehenen, Garona ibaia zeharkatu ondoren; gero, Somporteko mendatea zeharkatu ondoren, Aragoiko lurraldea eta ondoren nafarrena, Argako Zubiraino² eta are harantzago.

Garaziko Mendietako ibilbidetik ordea³, Tourseko lurraldearen ondoren, poitoutarren lurraldea dator⁴, aberats eta emankorra, ondasun oroz betea. Poitoutarrak gizon adoretu eta gerrarako iaioak dira, oso trebeak gerran arkuak, geziak eta lantzekin, gudazelaian bipilak, lasterketetan oso bizkorak, janzkeraz dotoreak, begitarte arraikoak, hitz egitean zuhurak, sariak ematen eskuzabalak, ostatua eskaintzeko atea zabalik dituztenak.

Gero Sainteseko lurraldea dago; gero, Garona ibaiaren itsasadarra igaro ondoren, Bordeleko lurraldea, ardo bikain eta arrain ugarikoa, baina larre-hizkuntza duena. Larre-gizonak bide dira Saintesekoak euren

ytinire] itinere S || garona] garonna R || tramitem] tramitem S || cysere] cisere S || abilis] ab illis S || pictai ... prodigi] om. R || premiis] primum S

1. Lau ibilbide nagusi ateratzen ziren Frantziatik, abiapuntua Paris, Vézelay, Le Puy eta Arles hirietan zutenak alegia. Lehen hirurak Ostabaten elkartzen ziren Pirinioak Garaziko Mendietatik zeharkatzeko eta laugarrenak Somportetik zeharkatzen zituen Pirinioak. Lehena eta azkena dira kapitulu honetan aipatzen diren bi ibilbideak, Toulousekoa Arlesetik abiatutikoa baita eta Vézelay nahiz Le Puytik Ostabatera bitarteko lurraldeei buruzko ezer ez baitu azaltzen.

2. Gares da Argako Zubia. Hemen elkartzen zen Toulouseko ibilbidea Pirinioak Garaziko Mendietatik (Orreagatik) zeharkatzen zituen bidearekin.

3. Ikus itzulpeneko lehen oharra.

4. Hiriburua Poitiersen duen lurraldea da Poitou.

Inde Burdegalenses Lande itinere dierum trium, fessis scilicet, inuenitur. Ipsa est tellus omni bono desolata, pane, uino, carne, piscibus, aquis et fontibus uacua, uillis rara, plana, sabulosa, melle tamen et milio et panicio et grugnis larga. Tu autem si in estate forte per eam transieris, faciem tuam studiose custodi a muscis immanissimis que *guespe* uel *tauones* uulgo dicuntur, que maxime ibi abundant. Et nisi diligenter pedem obseruaueris, in arena marina que ibi abundat usque ad genua uelociter lapsus fueris.

Transito uero hoc solo, inuenitur terra Gasconica, candido pane et optimo uino rubicundo larga, nemoribus et pratis, fluminibusque fontibus sanis apta. Gasconi sunt leuilogi, uerbosi, derisores, libidinosi, ebriosi, cibis prodigi, male induti pannis et gazis deuastati, bellis tamen assueti, sed hospitalitate pauperum precipui. Circa ignem sedentes, sine mensa comedere et cum uno cypho omnes bibere utuntur. Largiter comedunt et bibunt et male uestiuntur, et turpe subpositis paucis paleis, in putredine scilicet, familia cum domino et domina, omnes una recumbunt.

hizkuntzarengatik, baina Bordelekoak are larrekoagoak⁵.

Gero Bordeleko Landak datoz, hiru egun nekagarriko bidea. Ondasun orotan urria da lur hau, ogirik, ardorik, haragirik, arrainik, urik eta iturririk gabea, herri gutxi dituen, laua, hareatsua, ugaria ordea ezti, artatxiki, artaxehe eta txerritan⁶. Menturaz udan zeharkatzen baduzu lur hau, babestu zure aurpegia herriak *guespe* 'erlabio' edo *tauones* 'ezpara' deitu ohi dituen euli izugarrietatik, ugari baino ugariago baitira han⁷. Eta kontu handiz begiratzeko ez baduzu non zapaltzen duzun, laster sartuko zara belaunetaraino han ugari den itsas harean.

Lurralde hau igaro ondoren, Gaskoniako lurra dator, ogi zuri eta ardo beltz bikain ugariakoa, baso eta zelaiez eta ur oneko iturriak dituzten ibaiez ondo hornitua. Gaskoiak hitzontzi, berritsu, isekari, lizun, mozkorti, jatun, txarto jantziak eta bitxi gabekoak dira, gerrara ohituak ordea, baina behartsuekin abegitsuak oso. Mahairik gabe jan ohi dute suaren inguruan eserita, eta edalontzi bakarretik edan ohi dute guztiek. Jan eta edan, oparo egiten dute, txarto janzen dira eta lotsagarriro

burdegalenses] burdegalensis R || rusticiores] rustitiores S || plana] plena S || tamen] tantum R || grugnis *Fita Vielliard plq. edd.* gruguis C grugius S gruibus R || guespe] uespe R || gasconica] gasconica et terra basclorum R *qui lacunam habet usque ad* [in] uia sancti iacobi [ubi] est excellentissimus mons || fontibus] fontis S || gazis] gazas S || deuastati] denastati S || comedere] comedere S || omnes] omnis S || comedunt] comedunt S || male] malle S

5. Saintongera deitzen den mintzamoldea *langue d'oil* motakoa da, iparraldeko frantsesa bezala. Frantses horren aldean ezberdinagoa da Bordeleko gaskoia. Ohargarria da Sainteseko eta Bordeleko mintzamoldeei buruzko iruzkin hau, litekeena baita larrekotasun mailaketa honen azpian egilearen mintzamoldearekiko urruntasuna ezkutatzea. Horren arabera Saintes baino iparreragoko frantsesa izan liteke idazlea.

6. Eskuizkribu bakoitzak irakurketa bat ematen du (*gruguis*, *grugius*, *gruibus*) eta Fitaren proposamena onartu dugu guk, Vielliard eta beste editore batzuekin batera, *grunnio* aditzarekin zerikusia duen *grugnis* 'txerria' irakurritz. Salamancako eskuizkribuaren transkripzioa egin duten García Piñeiro eta Del Oro Trigok *gru(g)mis* 'garaua, bihia' irakurtzea proposatzen dute (Fundación Caixa Galicia 1993: 147)

7. Latin klasikoko *uespa* eta *tabanus* hitzen lurralde honetako forma arruntak dira hemen ematen direnak.

In huius terre exitu, uia scilicet Sancti Iacobi, habentur duo fluuii qui prope uillam Sancti Iohannis Sordue, alter scilicet ad dexteram et alter ad leuam fluunt, quorum unus dicitur *gauer* et alter *flumen*, qui sine rate nullo modo transmeari possunt, quorum naute penitus dampnantur. Cum enim flumina illa admodum stricta sint, tamen de unoquoque homine tam de paupere quam de diuite quem ultra nauigant, unum nummum more accipiunt, et de iumento quatuor, ui etiam indigne capiunt. Est etiam nauis illorum modica, unius arboris facta, equos minime recipiens, quam cum intraueris te ipsum caute custodi, ne forte in aquam cadas. Oportebit enim equum tuum per frenum trahere post te, extra nauim, per pelagum. Quapropter cum paucis ingredere nauim, quia si nimis honerata fuerit, cito periclitabitur. Multociens etiam tantam peregrinorum turmam naute, accepto precio, intromitunt, quod nauis subuertitur et peregrini in pelago necantur. Unde naute nequiter gaudent, captis mortuorum spoliis.

Inde circa Portus Cisereos habetur tellus Basclorum, habens urbem Baionam in maritima uersus septemtrionem. Hec terra lingua barbara habetur, nemorosa, montuosa, pane et uino omnibusque corporalibus alimentis desolata, excepto quia malis et sicera et lacte est consolata.

egiten dute lo denek batera lasto batzuen gainean, zikinean hain zuzen ere, etxeko guztiak ugazaba eta ugazabandreakin batera.

Lurralde honetatik irteteen, Santiago bidetik noski, bi ur-laster daude Sordeko Donibanetik hurbil, hain zuzen ere bat eskuinetara doana eta bestea ezkerretara, bat *gauer* 'erreka' deitzen zaiona eta bestea *flumen* 'ibaia'⁸. Biak ere ezin dira inola ere txaluparik gabe zeharkatu eta biziki gaitzetsi behar dira hemengo bateltzainak, ibai hauek estu-estuak izanik ere txanpon bana eskatu ohi baitute haatik beste aldera eramaten duten gizon bakoitzeko, hala txiroa nola aberatsa izanik, eta lau txanpon zamariengatik, are indarrez era lotsagarrian eskatuta. Gainera hauen ontziska txiki-txikia izaten da, arbola bakar batez egina, zaldiak ozta-ozta hartzen dituen. Horra sar zaitezenean kontu handiz ibili zeu, ez zaitezen menturaz uretara eror, eta hobe izango duzu beraz zaldia zeure atzetik eramatea, aho-uhaletik helduta, txalupatik kanpo, uretatik. Beraz ez sartu txalupara beste askorekin batera, pisu handiegia hartzen badu laster izango da hondoratzeko zorian eta. Gainera bateltzainek askotan, sarrera ordaina hartuta, hain erromestalde handia sartzen dute, non irauli egiten baita txalupa eta erromesak uretan ito. Horrekin maltzurki pozten dira bateltzainak, hildakoek utzitakoaz jabetzen baitira.

Gero Garaziko Mendietatik hurbil euskal lurrak⁹ datoz, itsasertzean

sint] fuit S || quem] que S || trahere] thare S || tantam] tanta S || quia] quod S || malis] malus S

8. Gave de Pau eta Gave d'Oloron deitzen dira gaur Sorde-l' Abbaye herritik hurbil elkartzen diren bi ibaiak.

9. *Basclorum* eta *Bascli* erabiltzen da beti liburu honetan sarriago *Bascorum* edo *Vasconum* eta *Basci* edo *Vascones* erabili ohi den lekuan. *Basclus/Nauarrus* bereizketari dagokionean ikus sarrera gisako argibideak, 'euskaldunak' irakurtzean gaurko Ipar Euskal Herriko euskaldunak ulertu behar baita eta 'nafarrak' irakurtzean Hego Euskal Herriko euskaldun guztiak.

In hac terra, mali portageri habentur –scilicet circa Portus Cisereos, uilla que dicitur Hostaualla et uilla Sancti Iohannis et Sancti Michaelis Pedis Portuum Cisere– qui penitus dampnantur. Exeunt enim obuam peregrinis cum duobus aut tribus iaculis, tributa iniusta uicapiantes. Et si quis transeuncium, secundum eorum petitionem, nummos illis dare noluerit, et iaculis illum percuciant et censum ab eo auferunt, exprobantes illum et usque ad femoralias exquirentes. Ipsi sunt feroces et terra in qua commorantur ferox et siluestris et barbara habetur; ferocitas uultuum similitudinisque lingue barbare eorum, corda uidencium illos expauescit. Cum non debeant rite accipere tributum nisi a mercatoribus tantum, a peregrinis et ab omnibus transeuntibus iniuste accipiunt; quando debent more accipere de qualibet re quatuor nummos uel sex, octo uel duodecim, duplum scilicet, capiunt.

Quapropter precipimus et exoramus ut hi portageri et rex Aragonensis ceterique diuites qui tributis pecunias ab eis accipiunt omnesque illorum consentientes, scilicet Raimundus de Solis et Uuianus de Acromonte et uicecomes de Sancto Michaele cum cunctis progeniis suis uenturis, una cum prefatis nautis et Arnaldo de Guinia cum omni progenie sua uentura, atque cum ceteris dominis aquarum predictarum qui ab eisdem

iparralderantz Baionako hiriarekin. Mintzaira basatiko lurra da, oihantsu eta menditsua, ogi, ardo nahiz bestelako janaririk gabekoa, sagarrak, sagardoa eta esnea ez bada.

Lur honetan, Garaziko Mendietatik hurbilean hain zuzen ere, Ostabat izeneko herrian, Donibane Garazin eta Donazaharren, biziki gaitzetsi behar diren bidasari-biltzaile gaiztoak daude. Erromesen bidera ateratzen dira bi edo hiru astamakilarekin, zuzengabeko zergak indarrez kenduz. Eta ibiltariren batek, eskatzen dizkioten moduan eman nahi ez badizkie txanponak, astamakilez astintzen dute eta daukan guztia kentzen diote, mehatxatuz eta barruko galtzetaraino arakatuz. Izugarriak dira eurak eta izugarri, landugabe eta basatia bizi diren lurra; hauen begitartearen eta euren mintzaira basatiaren izugarritasunak ikaratu egiten ditu ikusten dituztenen bihotzak. Legez merkatarien zergak baino ezin har ditzaketan arren, erromes eta bidazti ororengandik ere hartzen dituzte zuzengabe. Lege onean zernahirengatik lau edo sei txanpon jaso behar dituztenean, zortzi edo hamabi hartzen dituzte, bi halako hain zuzen.

Horregatik eskatzen eta erregutzen dugu bidasari-biltzaile hauek, Aragoiko Erregea¹⁰ eta hauengandik zergen dirua hartzen duten gainerako aberatsak eta guzti hau onartzen duten gainerakoak, hots, Raimundo Zuberoakoa, Bibiano Garamondarra, San Migeleko Bizkondea eta etorkizuneko hauen oinordetza osoak, aipatu batel-

transeuncium] transeuntium S || petitionem] petitionem S || uidencium] uidentium S || debeant] debent S || ab omnibus] omnibus S || pecunias] pecunias S || raimundus] rauriandus S || uiuianus] uiniamus S || et uicecomes de sancto michaele *mg. C*

10. Alfontso I.a Borrokalaria (1076-1134) da 1104 eta 1134 urteak bitartean Aragoi eta Nafarroako Errege izan zena.

nautis nummos nauigii iniuste accipiunt, cum sacerdotibus etiam qui penitentiam uel eucaristiam scienter illis tribuunt, uel officium diuinum eis faciunt, uel in ecclesia eos consenciunt, donec per longeuam ac patefactam penitentiam resipiscant, et modum in tributis suis ponant, non solum in sedibus episcopalibus terre illorum, uerum etiam in beati Iacobi basilica, peregrinis audientibus, sedule excommunicentur. Et quicumque prelatorum ex hoc, uel amore uel lucro, eis parcere uoluerint, anathematis gladio percuciantur. Sciendum quia ipsi portageri a peregrinis tributum accipere nullo modo debent, et naute prefati de duobus hominibus, scilicet de diuitibus, pro nauigio nisi unum obolum et de equo solum nummum accipere rite debent, de paupere uero nichil. Et magnas etiam naues in quibus iumenta et homines largiter queant intrare habere debent.

In terram etiam Basclorum, uia Sancti Iacobi est excellentissimus mons quod dicitur Portus Cisere, aut quia porta Yspanie ibi habetur aut quia per illum montem res necessarie de alia terra ad aliam transportantur; cuius ascensus octo miliariis et descensus similiter octo habetur. Sublimitas namque eius tanta est quod uisa est usque ad celum tangere, cuius ascensori uisum est propria manu celum posse palpitari; de cuius fastigio potest uideri mare Brittanicum et occidentale et hora

tzainekin batera eta Arnaldo Giniako eta etorkizuneko oinordetzarekin¹¹, eta bateltzain horiengandik zuzengabe zergaren dirua hartzen duten aipatu uretako jaunekin, orobat horiei jakinaren gainean aitortza nahiz eukaristia eskaintzen dizkieten edota eliz otoitza egiten dieten edota elizan onartzen dituzten apaizekin batera, gogotik eskumikatuak izan daitezela, hala bakoitzaren lurretako gotzain-hirian, nola Santiagoko basilikan erromesen aurrean, hoben-neke luze eta agerikoaren bidez damutu eta neurriko zergak jar ez ditzaten bitartean. Eta anatemaren ezpatak jo dezala maitasunez nahiz diru bila horiei hoben hau barkatu nahi diezaien edozein elizburu. Jakin beharrekoa da bidasari-biltzaile horiek ez dutela erromesengandik batere zergarik hartu behar, eta aipatu bateltzainek ez dutela bidasari bezala obolo bat baino hartu behar lagun biko, aberatsak izanez gero jakina, eta zaldiarengatik txanpon bakar bat, baina txiroengandik ezer ez. Eta gainera itsasontzi handiak izan behar dituzte, zamariak eta gizonak zabal sartzeko bestekoak.

Oraindik euskal lurretan, Santiago bidetik, mendi oso garai bat dago *Portus Cisere* [Port de Cize-Garaziko Mendatea] deitzen dena, edo Espainiako atea hantxe dagoelako edo mendi honetatik zehar garraiatzen direlako lurralde batetik bestera beharrezko gauzak¹². Zortzi miliakoa da goranzkoa eta beste zortzikoa behearanzkoa. Izan ere hainbestekoa da bere garaiera non zerua jotzen duela

uoluerint] noluerint S || uia sancti iacobi est] *inde ab* in uia sancti iacobi ubi est R *excipit* || quod] qui R || yspanie] hispanie R || octo habetur] icto habetur S || palpitari] palpitare R || occidentale] occidentalem S

11. Ez dakigu ezer ziur lau gizon hauei buruz.

12. Donibane Garazitik hasi eta gaur Frantzia eta Espainiaren arteko muga dagoen Bentartea Lepora doa gailurrez gailur, Hostategi eta Leizar Atekatik egungo G.R. 65 oinezko bidea jarraituz, hemen deskribitzen den bidea, gero Ibañetara jaisteko.

etiam trium regionum, scilicet Castelle et Aragoni et Gallie. In sumitate uero eiusdem montis est locus quod dicitur Crux Karoli quia super illum securibus et dolabris et fossoriis ceterisque manubiis, Karolus cum suis exercitibus in Yspaniam pergens, olim tramitem fecit signumque dominice crucis prius in eo eleuauit et tandem, flexis genibus, uersus Galleciam Deo et Sancto Iacobo precem fudit. Quapropter peregrini, genua sua ibi curuantes uersus Sancti Iacobi patriam, ex more orant et singuli singula uexilla dominice crucis infigunt. Mille etiam cruces ibi possunt inueniri, unde primus locus orationis Sancti Iacobi ibi habetur. In eodem monte, antequam Christianitas in horis yspanicis ad plenum augmentaretur, Nauarri impii et Bascli peregrinos ad Sanctum Iacobum pergentes non solum depredari, uerum etiam ut asinos equitare et perimere solebant.

luxta uero montem illum uersus scilicet septemtrionem, est uallis que dicitur Uallis Karoli in qua hospitatus fuit idem Karolus cum suis exercitibus quando pugnatore in Runciaualle occisi fuere; per quam etiam multi peregrini ad Sanctum Iacobum tendentes transeunt, nolentes montem ascendere.

